

Dekadentziaren lilura

IZUGARRIZKO PLAZERA izan da Kubako Ballet Nazionalaren saio bat ikustea. Ez da bakarrik dantza ona disfrutatzeagatik, baizik eta mila sentsaziok inguratzen zaituztelako haien emanaldi bakoitzean. Perfekzio tekniko ez da gauza bakarra, edo garrantzitsuena; are gehiago, ez nintzateke perfektioaren bila joango Alicia Alonsok zuzentzen dituen ikuskizun eder horietako batera hurbiltzen naizenean. Perfektioa bigarren plano batean geratzen da edertasuna lehen mailan eskaintzeko.

Bai, espektakulu ederra eman zen Kursaal Auditorioan, akats edo doitasun-ezez betea, baina xarmagarria, ondo egina, alai eta beste garai batera eramaten zaituena.

Coppélia ballet tradizionaleko titulu ezagunenetako bat da, Léon Delibesen musika duena. E.T.A Hoffmann-en ipuin batean oinarritzen da, eta, labur-labur esanda, Coppélius izeneko jostailu-egile zoro baten burutazio eroaren istorioa kontatzen du: berak egindako panpina batekin maitemintzen da eta bizitza eman nahi dio panpinari, hau da, Frankensteinen alde gozoa, eta komikoa.

Oso erraz jarraitzen da kontakizuna Alicia Alonsok egindako koreografian, Marius Petiten bertsioari jarraituz. Bestalde, nabaritzen da zuzendariaren ukitua, numero birtuosistiko ugari eskaintzen baitira, eta, orokorrean, koreografia distiratsua eta alai egiten zaigu saio osoan.

Ezin da ukatu talde legendario honek eta Alonsoren bertsioek kutsu nolabait dekadentea dutela, bai. Eszenografia ezin sinpleagoa, margotua, baina oso eraginkorra; jantzi koloretsuak, nahiz eta soilak... Kubako Balletaren saioek badute sinplizitatearen edertasun ulergarri eta gertukoa. Askotan behar duguna, hain zuzen ere.

Interpretazio aldetik, azpimarratu behar da protagonisten lan aparta. Yanela Piñerak, Swanilda-



N. REYES

Coppélia. Kubako Ballet Nazionala.

Musika: Léon Delibes. **Zuzendaria:** Alicia Alonso. **Bakarlariak:** Yanela Piñera, Camilo Ramos eta Enrique Díaz. **Lekua:** Kursaal Auditorioa. **Data:** azaroaren 23a.

ren rolean, dotorezia ematen dio pertsonaiari. Dantza elegantea du, fina, leuna. Camilo Ramosek, berriz, lan akrobatikoa egiten du Franz-en rolean, dantza sendo eta doia du, ikusgarria. Eta Diazek Coppélius jeniala egin zuen, oso komikoa, primeran interpretatua. Saioaren izarra suertatu zen, benetan. Agian puntu negatiboa taldeko numeroena izan zen. Doitasuna ez zen izan ezaugarri nabarmenena. Alaitasunez eta modu biziz interpretatua, baina sinkronizazio suitzarrik ez. ■

Montserrat Auzmendi



Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com